

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AMURRIOKO UDALA****Interesdunari jakinaraztea (espediente zk.: 16011P-56/2016), helbide ezezaguna baitu, udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik**

Administrazio egintza jakinaraztea Meryeme Hassani-ri.

Erabaki hau ezin izan zaionez jakinarazi interesdunari, helbide ezezaguna baitu, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan agintzen duena betez, iragarki hau BOEn, eta aurrez, nahi izanez gero, ALHAOn eta Udalaren iragarki taulan, argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 16/325P Ebazpena, hitzez hitz honela dioena:

“2016ko irailaren 27an, ebazpena eman zen (16/325P Dekretua), zeinak, zuri dagokizunez, eduki hau baitu:

Udal honek jakin du, A. B. jaunak/andreak, Elexondo kalea, 24 – 1.a esk. etxebizitzaren alokairu kontratuaren titularrak 2016ko urriaren 3an aurkeztutako idazkiaren bidez, Meryeme Hassani arauz kanpo erroldatuta dagoela udalaren biztanle erroldan, ez baita benetan bizi aipatutako etxean eta, hortaz, ez ditu betetzen uztailearen 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen Biztanle eta lurralde mugen Arautegiak 54. eta 68. artikuluetan ezarritako baldintzak.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi helbide horretan.

Bat etorri arautegi horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionalen lehendakariak eta Eskumenak autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak biek batera 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatzearen gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta orobat aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, aitortzen zaizkion ahalmenak erabiliz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko behean zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZEN-ABIZENAK:	AGIRIA
Meryeme Hassani	X-8552427-S

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeke, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko urriaren 27a. Idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko azaroaren 8a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA